

# Prensa oharra

## Nota de prensa



## **Donostiak sei pasabidetako segurtasuna indartuko du, ez irristatzeko tratamendu bat aplikatuz**

*Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak Larratxo, Martutene eta Artxipiko pasabideen 500 m<sup>2</sup> ingururen gainean jardun du*

Donostiako Udalak hiriko zurezko sei pasabidetako segurtasuna hobetu du, horietan ez irristatzeko tratamendu bat aplikatuko baitu. Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak sustatutako jarduketa hori 500 metro koadro inguruko azaleran egin da, eta apirilean eta maiatzean egindako konponketa-eta kontserbazio-lanei jarraipena eman die.

Ez irristatzeko tratamendu hori aplikatu baino lehen, hondatutako oholak eta arrastelak kendu eta ordeztu dira, eta erabileraren eta baldintza meteorologikoen ondoriozko higadurak gehien eragindako elementuak berritu dira. Esku-hartze honen bidez, azpiegitura horien segurtasun-baldintzak hobetu eta haien bizitza baliagarria luzatzea lortu nahi izan da.

Jarduketa sei pasabidetan egin da: bi Larratxo parkean, daude kokatuta, bat Martutenen (auzoa Okendotegi bidearekin lotzen du) eta hiru Artxipi parkean.

Azken asteetan amaitutako lanetan, besteak beste, produktu desinkrustatzaile bereziak aplikatuko dira; ingurunea garbituko da xurgatze-sistemen bidez; zura finki lixatuko da poroa irekitzen laguntzeko eta olio irristagaitzezko bi geruza emango dira, zura elikatzeke eta labainkortasunari hobeto aurre egiteko.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo García Villanuevak hau azpimarratu du: “horrelako azpiegituren prebentziozko mantentze-lanak ezinbestekoak dira horiek egunero erabiltzen dituzten pertsonen segurtasuna bermatzeko. Jarduketa honekin, hondatutako elementuak berritzeaz gain, erabilera-baldintzak hobetzen ditugu eta herritarrek asko erabiltzen dituzten instalazioen bizitza baliagarria luzatzen dugu”.

Jarduketaren kostua 11.000 eurokoa da guztira.